ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko maiatzaren 20a, astelehena • 56 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 270/2024 Foru Agindua, maiatzaren 10ekoa. Onestea 172 eredua (Moneta birtualen saldoei buruzko aitorpen informatiboa) eta 173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa), bai eta horiek aurkezteko baldintzak eta prozedura ere**

Abenduaren 23ko 24/2022 Foru Arauak, 2023ko zerga neurriei buruzkoak, IV. tituluan (“Zerga iruzurraren aurka borrokatzeko zerga neurriak”) 6. eta 7. apartatuak gehitzen dizkio Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriari (apartatu horiek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortu dituzte ondorioak), moneta birtualak edukitzeari eta horiekin egiten diren eragiketei buruzko informazio betebehar berriak ezartzeko, moneta horiek edukitzeak eta horiekin egiten diren eragiketek ekar litzaketen zerga egitateen kontrola hobetzeko.

Halaber, 49/2023 Foru Dekretuak, Foru Gobernu Kontseiluak abenduaren 19an onetsiak, 26. eta 26 bis artikuluen bitartez bi informazio betebehar berri horiek sartzen ditu Finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharraren araudian. Araudi hori abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuak onetsi zuen (horren bidez bi informazio betebehar berrien erregelamendua garatu zen).

Horregatik guztiagatik, foru agindu honen bidez bi aitorpen informatibo hauek aurkezteko behar diren ereduak onesten dira: 172 eredua (Moneta birtualen saldoei buruzko aitorpen informatiboa) eta 173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa). Horrez gainera, eman beharreko informazioa normalizatzeko erregistroen diseinuak ere onesten dira.

Aitorpen informatiboen edukia eta erregistro diseinuak foru agindu honen I. eta II. eranskinetan bildu dira.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak honetaz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, dauzkadan eskumenez baliatuz, honako hau,

XEDATZEN DUT

**1. artikulua. 172 eredua (Moneta birtualen saldoari buruzko aitorpen informatiboa) onestea**

172 eredua (Moneta birtualen saldoari buruzko aitorpen informatiboa) onesten da. Aitorpena egin behar dutenek urtero aurkeztu beharko dute eredu hau; hain zuzen ere, bitarteko elektronikoen bidez bidali beharko dute Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera, 9. eta 10. artikuluetan arautzen diren diseinuarekin, formatuarekin eta prozedurarekin bat etorriz. Ereduaren edukia foru agindu honen I. eranskinean ageri dena izan behar da.

**2. artikulua. 172 eredua (Moneta birtualen saldoari buruzko aitorpen informatiboa) aurkeztu behar dutenak**

172 eredua aurkeztu behar dutenak Finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharraren araudiaren 26. artikuluaren 1. apartatuan zehazten dira (araudi hori abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

**3. artikulua. 172 ereduan (Moneta birtualen saldoari buruzko aitorpen informatiboa) eman beharreko informazioa**

172 aitorpen ereduan foru agindu honen I. eranskinean azaltzen den informazioa eman behar da, Finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharraren araudiaren 26. artikuluan ezartzen denari jarraikiz (araudi hori abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), aitortu behar diren moneta birtualei dagokienez.

**4. artikulua. 172 eredua (Moneta birtualen saldoari buruzko aitorpen informatiboa) aurkezteko epealdia**

172 eredua urtero aurkeztu beharko da, aitortzen den informazioaren urtearen ondoko urteko urtarrilean.

**5. artikulua. 173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa) onestea**

173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa) onesten da. Aitorpena egin behar dutenek urtero aurkeztu beharko dute eredu hau; hain zuzen ere, bitarteko elektronikoen bidez bidali beharko dute Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera, 9. eta 10. artikuluetan arautzen diren diseinuarekin, formatuarekin eta prozedurarekin bat etorriz. Ereduaren edukia foru agindu honen II. eranskinean ageri dena izan behar da.

**6. artikulua. 173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa) aurkeztu behar dutenak**

173 eredua aurkeztu behar dutenak Finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharraren araudiaren 26. artikuluaren 1. eta 3. apartatuetan zehazten dira (araudi hori abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

**7. artikulua. 173 ereduan (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa) eman beharreko informazioa**

173 aitorpen ereduan foru agindu honen II. eranskinean azaltzen den informazioa eman behar da, Finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eta atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharraren araudiaren 26 bis artikuluan ezartzen denari jarraikiz (araudi hori abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), aitortu behar diren moneta birtualei dagokienez.

**8. artikulua. 173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa) aurkezteko epealdia**

173eredua urtero aurkeztu beharko da, aitortzen den informazioaren urtearen ondoko urteko urtarrilean.

**9. artikulua. 172 eredua eta 173 eredua aurkezteko prozedura eta modua**

1. 172 eredua (Moneta birtualen saldoari buruzko aitorpen informatiboa) eta 173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa) baliabide elektronikoen bidez aurkeztu behar dira nahitaez.

2. 172 eta 173 ereduak aurkezteko, zenbait XML fitxategi aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (www.araba.eus) ezarritako web zerbitzu hau erabiliz: “Banakako aitorpenak aurkeztea”.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**10. artikulua. Aurkeztu beharreko fitxategien formatua eta diseinua**

172 eta 173 ereduetako aitorpenen fitxategiek foru agindu honen **I.** eta **II.** eranskinetako erregistro eremuak eduki behar dituzte, eta horien formatua eta diseinua aldi bakoitzean Arabako Foru Aldundiaren www.araba.eus egoitza elektronikoan daudenak izan behar dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa. 2023ko ekitaldiko 172 eredua (Moneta birtualen saldoei buruzko aitorpen informatiboa) aurkezteko epealdia.

Moneta birtualen saldoei buruzko lehen aitorpena (172 eredua) foru agindu hau indarrean jarri ondoko hilean aurkeztu beharko da, eta bertan 2023ko ekitaldiko saldoei buruzko informazioa eman beharko da.

Bigarrena. 2023 ekitaldiko 173 eredua (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko aitorpen informatiboa) aurkezteko epealdia.

Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko lehen aitorpena (173 eredua, foru agindu honen 5 - 8 bitarteko artikuluetan arautzen dena) foru agindu hau indarrean jarri ondoko hilean aurkeztu beharko da, eta bertan Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 19ko 49/2023 Foru Dekretua indarrean ipini ondoren 2023ko ekitaldian egindako eragiketei buruzko informazioa eman beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko informazioa emateko 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorpen informatiboei aplikatuko zaie lehenengoz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 10a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*

*Ogasun zuzendaria*
*MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## I. ERANSKINA

### 172 EREDUA (MONETA BIRTUALEN SALDOARI BURUZKO AITORPEN INFORMATIBOA): EDUKIA

Foru agindu honetan xedatzen dena betetzeko bidaltzen diren mezu informatikoetan ondoren zehaztuko den informazioa agertu beharko da (172 aitorpen ereduaren edukia biltzen duten mezu informatikoetako erregistro eremuen deskribapena txertatu da).

### I. ALTA ETA ALDAKETA MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK.

| Legenda | Eremua |
|---|---|
| Gorria edo [1](goi indizea) | **Nahitaezko eremua** |
| (N) = | **Talde errepikakorra** |
| Beltza = | **Aukerako eremua** |
| | **Hautaketa eremua** |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Goiburua | KomunikazioMota [1] | | | | Eragiketa mota (alta, aldaketa). | Alfanimerikoa(2) L1 |
| | Eredua [1] | | | | Aitorpen eredua. | Zenbakizkoa(3) |
| | Ekitaldia [1] | | | | Ekitaldia. | Zenbakizkoa (4) |
| | IDEreduarenBertsioa [1] | | | | Informazioa aurkezteko erabilitako eskemaren bertsioaren identifikazioa. | Alfanumerkoa(3) L0 |
| | IDAitortzailea [1] | IFZ [1] | | | Aitortzailearen IFZ. | IFZFormatua(9) |
| | | Izena [1] | | | Aitortzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena. | Alfanumerikoa (120) |
| | | OrdezkariarenIFZ | | | Aitortzailearen ordezkariaren IFZ. | IFZFormatua(9) |
| | | HarremanetarakPertsona | Telefonoa [1] | | Harremanetarako pertsonaren telefono zenbakia. | Alfanumerikoa (16) |
| | | | AbizenakIzena [1] | | Harremanetarako pertsonaren abizenak eta izena. | Alfanumerikoa (120) |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aitortua | IDAitortuaren Erregistroa [1] | | | | Xehetasun erregistroaren identifikatzailea. | Alfanumerikoa (20) |
| | IDAitortua [1] (N) | Gakoa [1] | | | Aitortuaren izaeraren gakoa. | Alfabetikoa(1) L2 |
| | | Izena [1] | | | Aitortuaren izen-abizenak edo sozietate izen osoa: urtean zehar noizbait moneta birtuala eduki duen pertsona edo entitatea. | Alfanumerikoa (120) |
| | | OrdezkariarenIFZ | | | Aitortzailearen ordezkariaren IFZ. | IFZFormatua(9)) |
| | | IFZ [1] | | | Aitortuaren IFZaren identifikatzailea. | IFZFormatua(9) |
| | | IDBesteBat [1] | HerrialdearenKodea | | Aitortuaren IFZarekin lotutako herrialdearen kodea. | Alfanumerikoa(2) (ISO 3166-1 alpha-2 codes) L3 |
| | | | IDType [1] | | Egoitza daukan herrialdearen identifikazio motaren gakoa. | Alfanumerikoa(2) L4 |
| | | | ID [1] | | Egoitza daukan herrialdeko identifikazio zenbakia. | Alfanumerikoa (20) |
| | | Helbidea [1] | HerrialdearenKodea [1] | | Aitortuaren egoitza dagoen herrialdearen kodea. | Alfanumérico(2) (ISO 3166-1 alpha-2 codes) L3 |
| | | | UdalerriarenIzena | | Aitortuaren egoitza dagoen udalerriaren izena. | Alfanumerikoa (30) |
| | | | BidearenIzena | | Aitortuaren egoitza dagoen bide publikoaren izena. | Alfanumerikoa (50) |
| | | | Zenbakia | | Aitortuaren egoitza dagoen bide publikoaren zenbakia. | Zenbakizkoa(5) |
| | | | Posta kodea | | Egoitzaren posta kodea jarri behar da. | Alfanumerikoa (12) |
| | | | Osagarria | | Egoitzari buruzko informazio gehiago. | Alfanumérico(50) |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | IDMonetak (N) | MonetaMota [1] | | | Informazioa eman behar monetaren mota. | Alfabetikoa(1) L5 |
| | | MonetaBirtuala Moneta motaren eremuan (V) ipini bada | MonetaBirtualaMota [1] | MonetaBirtualarenIzena[1] | Moneta birtualaren izena. | Alfanumerikoa (50) |
| | | | | MonetaBirtualarenSiglak [1] | Moneta birtualaren siglak. | Alfanumerikoa (15) |
| | | | MonetaKopurua [1] | | Aitortuak abenduaren 31n eduki dituen moneta birtualaren unitateak. Abenduaren 31n aitortzaileak ez badu eduki jada zaintzapean aitortuaren moneta birtualik, eremu honetan adierazi behar da zer egunetan amaitu den zaintza. | Zenbaki Hamartarra (19,6) |
| | | | MonetenBalioa [1] | | Aitortutako moneta birtualaren unitatearen balioa euroetan. Balio hori zenbatesteko, abenduaren 31n (edo ZaintzaZerbitzuaAmaituEgunean) negoziazio plataforma nagusietan edo prezioen jarraipenerako web orri nagusietan ageri den kotizazioa hartuko da kontuan edo, bestela, monetak birtualak abenduaren 31n (edo ZaintzaZerbitzuaAmaituEegunean) eduki duen merkatuko balioaren zentzuzko zenbatespena euroetan. | Zenbaki Hamartarra (10,6) |
| | | | MonetenBalioarenSorburua [1] | | Eremu honetan zehaztu behar da zer negoziazio plataforma, prezio jarraipenerako web orri edo bestelako leku hartu den aintzat aurreko eremuan aitortutako moneta birtualaren unitatearen balioa euroetan zenbatekoa den finkatzeko erabili den kotizazioa edo balioa. | Alfanumerikoa (50) |
| | | | ZaintzaZerbitzuaAmaituEguna | | Abenduaren 31n aitortzaileak ez badu eduki jada zaintzapean aitortuaren moneta birtualik, eremu honetan adierazi behar da zer egunetan amaitu den zaintza. | Data (uuuu-hh-ee) |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | MonetaFiduziarioa Moneta motaren eremuan (F) ipini bada | MonetaBirtualarenSaldoa [1] | | Aitortutako moneta birtualaren saldoa abenduaren 31n. Abenduaren 31n aitortzaileak ez badu eduki jada zaintzapean aitortuaren moneta birtualik, eremu honetan zaintza amaitu den eguneko saldoa jarri behar da. Aldaketa eguna: Abenduaren 31n aitortzailea ez bada jada titularra, baimendua edo onuraduna, eremu honetan zehaztu behar da zer egunetan gertatu den aldaketa. | Zenbaki Hamartarra (20,6) |
| | | | MonetaFiduziarioarenMota [1] | | Aitortzaileak aitortuaren kontura daukan moneta fiduziarioaren mota. | Alfanumerikoa (10) L6 |
| | | | MonetaFiduziarioarenBalioa | | Moneta fiduziarioa euroa ez bada, eremu honetan zehaztu behar da zenbatekoa den euroetan aurreko eremuan adierazitako moneta fiduziarioaren balioa. | Zenbaki Hamartarra (10,6) |
| | | | ZaintzaZerbitzuaAmaituEguna | | Abenduaren 31n aitortzailea ez bada jada titularra, baimendua edo onuraduna, eremu honetan zehaztu behar da zer egunetan gertatu den aldaketa. | Data (uuuu-hh-ee) |
| | | | MonetaFiduziarioarenSaldoa [1] | | Aitortzaileak abenduaren 31n aitortuaren kontura daukan moneta fiduziarioaren saldoa. Abenduaren 31n aitortzaileak ez badu eduki jada zaintzapean aitortuaren moneta fiduziariorik, eremu honetan adierazi behar da zer egunetan gertatu den hori. | Zenbaki Hamartarra (20,6) |

**II. ZERRENDA MOTAKO EREMUETAN ERABIL DAITEZKEEN GAKOAK ETA BALIOAK:**

**L0-IDBertsioaM172**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| 1.0 | Informazio trukerako erabilitako eskemaren egungo bertsioa |

**L1-Komunikazio Mota**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| A0 | Erregistro alta |
| A1 | Aldaketa (erregistro akatsak zuzentzea) |

**L2- Aitortuaren izaera**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| T | Titularra |
| A | Baimendua |
| B | Onuraduna |

**L3- Herrialdearen Kodea**

Indarrean dauden herrialdeen eta lurraldeen kodeen zerrendaren arabera emango da informazioa.

**L4- Identifikazio motak**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| 02 | IZF-BEZ |
| 03 | PASAPORTEA |
| 04 | EGOITZA DAGOEN HERRIALDEAK EDO LURRALDEAK EMANDAKO IDENTIFIKAZIO AGIRI OFIZIALA |
| 05 | EGOITZA ZIURTAGIRIA |
| 06 | BESTE FROGAGIRI BAT |

**L5- Informazioa eman behar monetaren mota**

| BALIOK | AZALPENA |
|---|---|
| V | Moneta Birtuala |
| F | Moneta Fiduziarioa |

**L6-Moneta Fiduziario Mota**

ISO 4217 nazioarteko arauak finkatutako laburdura erabili beharko da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## II. ERANSKINA

### 173 EREDUA (MONETA BIRTUALEKIN EGINDAKO ERAGIKETEI BURUZKO AITORPEN INFORMATIBOA): EDUKIA

Foru agindu honetan xedatzen dena betetzeko bidaltzen diren mezu informatikoetan ondoren zehaztuko den informazioa agertu beharko da (173 aitorpen ereduaren edukia biltzen duten mezu informatikoetako erregistro eremuen deskribapena txertatu da).

### I. ALTA ETA ALDAKETA MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK.

| Legenda | Eremua |
|---|---|
| Gorria edo [1](goi indizea) | **Nahitaezko eremua** |
| (N) = | **Talde errepikakorra** |
| Beltza = | **Aukerako eremua** |
| | **Hautaketa eremua** |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Goiburua | KomunikazioMota [1] | | | | Eragiketa mota (alta, aldaketa). | Alfanumerikoa(2) L1 |
| | Eredua [1] | | | | Aitorpen eredua. | Zenbakizkoa(3) |
| | Ekitaldia [1] | | | | Ekitaldia. | Zenbakizkoa(4) |
| | IDEreduarenBertsioa [1] | | | | Informazioa aurkezteko erabilitako eskemaren bertsioaren identifikazioa. | Alfanumerikoa(3) L0 |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | IDAitortzailea [1] | IFZ [1] | | | Aitortzailearen IFZ. | IFZFormatua(9)) |
| | | Izena [1] | | | Aitortzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena. | Alfanumerikoa(120) |
| | | OrdezkariarenIFZ | | | Aitortzailearen ordezkariaren IFZ. | IFZFormatua(9)) |
| | | HarremanetarakPertsona | Telefonoa [1] | | Harremanetarako pertsonaren telefono zenbakia. | Alfanumerikoa(16) |
| | | | Izena [1] | | Harremanetarako pertsonaren abizenak eta izena. | Alfanumerikoa(120) |
| Aitortua | IDAitortuarenErregistroa [1] | | | | Xehetasun erregistroaren identifikatzailea. | Alfanumerikoa(20) |
| | IDAitortua [1] (N) | Izena [1] | | | Aitortuaren izen-abizenak edo sozietate izena: aitortzen den eragiketa egin duen pertsona edo entitatea | Alfanumerikoa(120) |
| | | OrdezkariarenIFZ | | | Aitortzailearen ordezkariaren IFZ. | IFZFormatua(9) |
| | | IFZ [1] | | | Aitortuaren IFZaren identifikatzailea. | IFZFormatua(9)) |
| | | IDBesteBat [1] | HerrialdearenKodea | | Aitortuaren IFZarekin lotutako herrialdearen kodea. | Alfanumerikoa(2) (ISO 3166-1 alpha-2 codes) L2 |
| | | | IDType [1] | | Egoitza daukan herrialdearen identifikazio motaren gakoa. | Alfanumerikoa(2) L3 |
| | | | ID [1] | | Egoitza daukan herrialdeko identifikazio zenbakia. | Alfanumerikoa(20) |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Helbidea [1] | HerrialdearenKodea [1] | | Aitortuaren egoitza dagoen herrialdearen kodea. | Alfanumerikoa(2) (ISO 3166-1 alpha-2 codes) L2 |
| | | | UdalerriarenIzena | | Aitortuaren egoitza dagoen udalerriaren izena. | Alfanumerikoa(30) |
| | | | BidearenIzena | | Aitortuaren egoitza dagoen bide publikoaren izena. | Alfanumerikoa(50) |
| | | | Zenbakia | | Aitortuaren egoitza dagoen bide publikoaren zenbakia. | Zenbakizkoa (5) |
| | | | Posta kodea | | Egoitzaren posta kodea jarri behar da. | Alfanumerikoa(12) |
| | | | Osagarria | | Egoitzari buruzko informazio gehiago. | Alfanumerikoa(50) |
| | EragiketarenDatuak [1] (N) | EragiketaMota[1] | | | Moneta birtual(ar)ekin egindako eragiketaren mota. | Alfabetikoa (1) L4 |
| | | EragiketarenData[1] | | | Aitortutako eragiketaren data. | Data (uuuu-hh-ee) |
| | | MonetarenBirtualarenMota [1] | MonetaBirtualarenIzena[1] | | Aitortutako eragiketa egin den moneta birtualaren izena. | Alfanumerikoa (50) |
| | | | MonetaBirtualarenSiglak[1] | | Aitortutako eragiketa egin den moneta birtualaren siglak. | Alfanumerikoa (15) |
| | | MonetaKopurua [1] | | | Aitortutako eragiketa egin den moneta birtualaren unitateen kopurua | Zenbaki Hamartarra (19,6) |
| | | EragiketarenBalioa[1] | | | Aitortutako eragiketaren balioa euroetan. | Zenbaki Hamartarra (16,6) |
| | | KomisioakGastuak [1] | | | Eragiketak eragindako komisioak eta gastuak, aitorpen informatiboa aurkeztu behar duen subjektuak jaso dituenak. | Zenbaki Hamartarra (10,6) |
| | | Kontraprestazioa[1] | | | Zehaztu behar da aitorpen informatiboa aurkeztu behar duenak aitortu beharreko kontraprestaziorik dagoen ala ez. | Alfabetikoa (1) L5 |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | KontraprestazioarenZenbatekoaGuztira | | | Baldin eta "Kontraprestazioa" eremuan "S" ipini bada, eremu honetan ezarri behar da aitorpen informatiboa aurkeztu behar duen subjektuak adierazi beharreko kontraprestazioaren guztirako balioa euroetan. | Zenbaki Hamartarra (16,6) |
| | | KontraprestazioarenXehetasuna (N) | KontraprestazioMota[1] | | Baldin eta "Kontraprestazioa" eremuan "S" ipini bada, eremu honetan kontraprestazioa zer motatakoa den zehaztu behar da. | Alfabetikoa (1) L6 |
| | | | KontraprestazioarenZenbatekoa[1] | | Kontraprestazioaren zenbatekoa, kontraprestazio modalitate edo mota bakoitzeko. Eragiketak diru fiduziario osoko kontraprestaziorik ez badakar eta, beraz, eragiketa eurotan zenbatetsi behar bada, eragiketa egin den egunean negoziazio plataforma nagusiek edo prezioen jarraipena egiteko web orri nagusiek emandako kotizazioa hartuko da aintzat edo, bestela, eragiketa egin den egunean moneta birtualak eduki duen merkatuko balioaren zentzuzko zenbatespena euroetan. | Zenbaki Hamartarra (16,6) |
| | | | KontraprestazioMotarenDeskribapena | KontraprestazioarenIzena[1] | Eragiketaren kontraprestazio osoa ez bada moneta fiduziarioan, eremu honetan zehaztu behar da zer moneta edo aktibo birtual, ondasun edo zerbitzu eman den kontraprestazio gisa. | Alfanumerikoa(50) |
| | | | | KontraprestazioarenSiglak | Baldin eta "Kontraprestazio mota" eremuan "N" ipini bada, eremu honetan kontraprestazioaren moneta birtualaren motaren siglak idatzi behar dira. | Alfanumerikoa(15) |
| | | | KontraprestazioarenUnitateenKopurua | | Eragiketaren kontraprestazio osoa ez bada moneta fiduziarioan, eremu honetan zehaztu behar da moneta edo aktibo birtual, ondasun edo zerbitzuaren zenbat unitate eman diren kontraprestazio gisa. | Zenbaki Hamartarra (19,6) |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | KontraprestazioarenBalioa | | Eragiketaren kontraprestazio osoa ez bada moneta fiduziarioan, eremu honetan zehaztu behar zenat balio duen euroetan kontraprestazio gisa emandako moneta edo aktibo birtual, ondasun edo zerbitzuaren unitateak. | Zenbaki Hamartarra (10,6) |
| | | | KontraprestazioarenBalioarenSorburua | | Eragiketaren kontraprestazio osoa ez bada moneta fiduziarioan, eremu honetan zehaztu behar da zer negoziazio plataforma, prezio jarraipenerako web orri edo bestelako lekutan lortu den kontraprestazioaren balioa. | Alfanumerikoa(50) |
| | | HasierakoEskaintzarenAitortzailea | | | Baldin eta "Eragiketa mota" eremuan "N" ipini bada (Moneta birtual berrien emateak), eremu honetan zehaztu behar da aitortzaileak egin duen moneta birtual berrien hasierako eskaintza edo ez. | Alfabetikoa (1) L7 |
| | | HasierakoEskaintzarenIdentifikazioa | HasierakoEskaintzaEginDuenarenIzena[1] | | Baldin eta "Hasierako eskaintza aitortzaileak egin" eremua N ipini bada, hau da, aitortzaileak EZ bada moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsona, eremu honetan moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsonaren izen-abizenak idatzi behar dira edo entitatearen sozietate izen osoa. | Alfanumerikoa(120) |
| | | | OrdezkariarenIFZ | | Moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsonaren edo entitatearen legezko ordezkariaren IFZ. | IFZFormatua(9) |
| | | | HasierakoEskaintzaEginDuenarenIFZ[1] | | Moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsonaren edo entitatearen IFZaren identifikatzailea. | IFZFormatua(9) |
| | | | IDBesteBatHasierakoEskaintza[1] | HerrialdearenKodea | Moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsonaren edo entitatearen IFZarekin lotutako herrialdearen kodea. | Alfanumerikoa(2) (ISO 3166-1 alpha-2 codes) L2 |

| BLOKEA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | DATUAK/ MULTZOA | AZALPENA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | IDType [1] | Moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsonak edo entitateak egoitza daukan herrialdean daukan identifikazioaren motaren gakoa. | Alfanumerikoa(2)<br>**L3** |
| | | | | ID [1] | Moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsonak edo entitateak egoitza daukan herrialdean daukan identifikazio zenbakia. | Alfanumerikoa(20) |

**II. ZERRENDA MOTAKO EREMUETAN ERABIL DAITEZKEEN GAKOAK ETA BALIOAK:**

**L0-IDBertsioaM173**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| 1.0 | Informazio trukerako erabilitako eskemaren egungo bertsioa |

**L1-Komunikazio Mota**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| A0 | Erregistro alta |
| A1 | Aldaketa (erregistro akatsak zuzentzea) |

**L2- Herrialdearen Kodea**

Indarrean dauden herrialdeen eta lurraldeen kodeen zerrendaren arabera emango da informazioa.

**L3-Identifikazio motak**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| 02 | IZF-BEZ |
| 03 | PASAPORTEA |
| 04 | EGOITZA DAGOEN HERRIALDEAK EDO LURRALDEAK EMANDAKO IDENTIFIKAZIO AGIRI OFIZIALA |
| 05 | EGOITZA ZIURTAGIRIA |
| 06 | BESTE FROGAGIRI BAT |

**L4-Eragiketa mota**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| A | Eskuraketa/Kobrantza |
| T | Eskualdaketa/Ordainketa |
| P | Trukaketa |
| R | Transferentzia |
| N | Moneta birtual berrien emateak |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**L5-Kontraprestazioa**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| S | Kontraprestazioa egon da eta aitorpena aurkeztu behar duenak ordaindu du, jaso du, bitartekari jardun du edo horren berri daki. |
| N | Aitorpena aurkeztu behar duenak ez daki eragiketaren kontraprestazioaren berri. |

**L6-Kontraprestazio Mota**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| F | Moneta fiduziarioa |
| N | Beste Moneta Birtuala |
| O | Beste Aktibo Birtuala |
| B | Ondasunak eta zerbitzuak |

**L7- Hasierako Eskaintzaren Aitortzailea**

| BALIOAK | AZALPENA |
|---|---|
| S | Aitortzailea moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsona bada |
| N | Aitortzailea moneta birtual berrien hasierako eskaintza egin duen pertsona EZ bada |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.05.20 05:30:03 Z